

# ALEXIAREN AURREAN,

## IKASLEOK ANTOLATU

2018-19 kurtsoa gogorra izan da ikasleontzat, lehen egunetik ikastolak ikasleonek aurka burututako eraso baten ondorioz. Orain arte **Alexia** moduan ezagutu dugun plataforma birtualak (ebaluazioko notak igotzeko erabilia) **bere funtzioak handitu izan ditu**, kalifikazioak ez diren beste esparru batzuetara bere jarduera zabalduz. Alexiak egun, ikasleriaren egunerokotasunaren berri ematen du, ikasleok burutzen dugun jardun oro kontrolatuz: puntualitate faltak, ez etortzeak, kanporatzeak edota gure jarrerak. Hori dela eta, ikasleonek haserrea nabarmen hasi da, **Alexiaren jardunak ikasleriaren eguneroko praktika urratzen duelako**. Erabaki hau ez da ongi etorria izan ikasleonek artean, gurasoekin asteburuko liskarrak dira horren adibide, gurasoek “falta” hauen berri dutenean edota ikasleriaren askatasun eta eskubideen inguruan eztabaidatzerakoan.

Alexia 

• Kontrola • Manipulazioa • Errepresioa

Irakasle zein gurasoentzat aberasgarria izan daiteke Alexia, erosotasun handia eskaintzen dielako. Irakasleak bere posiziotik hartutako neurriaren berri ematen die gurasoei, horren adibide da Alexian erabilitako terminologia (Zure semea-alaba klasetik kanporatua izan da; zure seme-alaba berandu heldu da klasera) edota jarrerak epaitzeko ikuspegi subjektibista, hau da, soilik irakasleak du jarrera bat egokia den edo ez epaitzeko aukera. Honen ondorioz, gurasoek, irakasleonek arrazoiak bete-betean onartzen dituzte. Aldiz, guretzat, **ikasleontzat, oso kezagarria da**. Ikasleok oso egoera prekario batean kokatzen gara Alexiaren berrien aurrean. Ikasleok gure iritzia zein gertaeraren inguruan dugun ulerkera esposatzeko aukera guztiak galtzen ditugu. Beraz, uste dugu **Alexia kontrol hutsera mugatzen dela**, gertakizunen inguruko kontakizun bakar baten alde eginez, **ikasleonek iritzia erabat zapalduz eta irakaslearen autoritatea indartuz**.

**Alexia ez da ikasleonek jarrerak hobetzeko tresna, jarrera edo praktika orokortu batzuk inposatzeko bat baizik**, ikasle diziplinatu eta isilarenak alegia. Ikasleok praktika orokortu horien inguruan dugun iritzi oro salatu egiten du Alexiak, edozein erresistentzia kondenatuz. Alexiak ondorioei soilik erreparatzen die, ez ondorio horietara heltzeko gertakizun edo arrazoiak. **Ikasleonek egoera ez du aztertzen**: klasean nola sentitzen garen, lantzen dugun edukia guretzat egokia den ala ez, egun txarra izan dugun ala ez... Hau da, arazo estruktural

baten aurrean eztabaidatu baino (hezkuntza-sistemaren porrota) horren ondorio diren jarrerak kolpatzen ditu. Era berean, Alexiaren erabilerak horrenbeste goraiatzeko den Ikastolen Elkarteak hezkuntza ereduari kontraesanak sortzen dizkio, ikasleonek garapena, autonomia zein kritikotasuna zapalduz.

**Alexia ikasleonek ikas-baldintzak bermatu ez eta gehiago zapaltzen gaituen tresna da.** Hori dela eta, ikasleria osoari dei egiten diogu gurekin batera Alexiaren aurka borrokatzera, eta astero antolatuko ditugun kontzentra zein paroetan parte hartzera. Ikasleoi gure interesei, zapalduen interesei, erantzun dion hezkuntza propioaren eraikuntzan antolatzea beharrezkoa zaigu, gure iritzia kontuan hartua izateko, gu errespetatzeko eta gure gaitasun iraultzaileak presente egoteko. **Horregatik autodefentsa sare honetan jarrera aktibo bat izatera gonbidatzen zaituztegu astero antolatuko ditugun kontzentra eta paroetan parte hartuz, Alexiaren indargabetzea lortzeko.** Bukatzeko, irakasleei Alexiaren erabilerarekin bukatzea eskatu nahi diegu, ikasleonek kontrako eraso honen parte ez izateko gure aldarrikapenen zilegitasuna onartuz.

*Aiaraldeko Ikasle Autodefentsa Sarea*